



EXCMA. SRA.:

ANDRE HORI:

Adjunto tengo el honor de remitir a V.E., certificación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 18 de diciembre de 2007, de manifestación del criterio del Gobierno en relación con la toma en consideración de la Proposición de Ley formulada por el Grupo Parlamentario Mixto-Aralar "para la reforma de la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca".

Lo que traslado a V.E. para su conocimiento y efectos oportunos, dando así cumplimiento a lo acordado por el Consejo de Gobierno.

Honekin batera bidaltzen dizut Jaurlaritzaren Kontseiluak 2007ko abenduaren 18an egindako bileran hartutako Erabakiaren ziurtagiria, Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea aldatzeko Aralar Eusko Legebiltzar-taldeak egindako lege-proposamena kontuan hartzeari buruzkoa.

Adierazitako hori jakinarazten dizut, jakinaren gainean egon zaitezten eta bidezkoak diren ondorioak izan ditzan, halaxe erabaki baitzen Jaurlaritzaren Kontseiluan.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de diciembre de 2007.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko abenduaren 18a.

JAURLARITZAREN IDAZKARITZAKO ETA  
LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIA  
EL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO  
Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

**EUSKO LEGEBILTZARREKO LEHENDAKARIA  
EXCMA. SRA. PRESIDENTA DEL PARLAMENTO VASCO.**

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**



**IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN, VICEPRESIDENTA Y  
SECRETARIA DEL GOBIERNO VASCO**

**CERTIFICO:**

Que el Gobierno Vasco, en sesión celebrada el día 18 de diciembre de 2007, adoptó, entre otros, el siguiente Acuerdo:

PROPUESTA DE ACUERDO DE MANIFESTACIÓN DEL CRITERIO DEL GOBIERNO EN RELACIÓN CON LA TOMA EN CONSIDERACIÓN DE LA PROPOSICIÓN DE LEY FORMULADA POR EL GRUPO PARLAMENTARIO MIXTO-ARALAR PARA "LA REFORMA DE LA LEY 6/1989, DE LA FUNCIÓN PÚBLICA VASCA".

Analizada la Proposición de Ley presentada por el Grupo Parlamentario Mixto-Aralar "*para la reforma de la Ley 6/1989, de la Función Pública Vasca*", el Consejo de Gobierno, previa deliberación, adopta el siguiente

**ACUERDO**

Primero.- Manifestar su criterio desfavorable a la toma en consideración de la citada Proposición de Ley por las siguientes razones:

1) La Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, concretamente en su título V, relativo a la normalización lingüística, desarrolla las previsiones del artículo 14 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, al objeto de determinar los puestos de trabajo de las diferentes Administraciones Públicas para cuya provisión resulta preceptivo el conocimiento de las dos lenguas oficiales.

2) El vigente régimen de asignación de perfiles lingüísticos y de preceptividades de los mismos pretende ser acorde con la realidad sociolingüística del ámbito territorial donde se debe aplicar con el fin de garantizar las exigencias de elección de lengua del ciudadano a la hora de obtener o acceder a los servicios públicos.

3) Asimismo, en el marco de la planificación actual, y con objeto de promover la progresiva normalización del uso del euskera en las Administraciones Públicas Vascas y de garantizar al ciudadano el ejercicio efectivo del derecho a ser atendido en la lengua de su elección, se han establecido como prioridades, a fin de garantizar la atención en euskera al administrado, tanto oralmente como por escrito, las unidades administrativas de atención al público y las unidades que tengan contacto directo y habitual con la juventud. Por lo tanto, los Planes de Normalización del Uso del Euskera en la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi han establecido una clara prioridad de las unidades y dotaciones de atención al público tanto a la hora de la aplicación de los planes como en la determinación de los criterios de preceptividad. El IV Plan 2008-2012 -actualmente en fase de elaboración- viene asimismo a reafirmar y consolidar esta prioridad de las unidades y dotaciones de atención al público, básica para garantizar los derechos lingüísticos de las ciudadanas y ciudadanos de la Comunidad Autónoma vasca.

4) No obstante, en cualquier caso, resulta necesario establecer las necesarias cautelas y reservas en orden al establecimiento de una fecha límite de preceptividad de aplicación universal, dado que ello tiene consecuencias directas en el estatus y la situación del personal al servicio de las Administraciones Públicas vascas y, asimismo, deben tomarse en consideración las diversas realidades sociolingüísticas y el principio de progresividad en la aplicación de las políticas lingüísticas.

4) Por otra parte, el Gobierno se encuentra actualmente en fase de elaboración de un nuevo texto de la Ley de Función Pública Vasca, que será sometido a debate y, en su caso, aprobación del Parlamento en los próximos meses, por lo que criterios de oportunidad y viabilidad hacen aconsejable no acometer en este momento modificaciones parciales de la ley actualmente vigente, así como derivar al mismo el debate y la consideración de una iniciativa como la planteada en la proposición presentada.

Segundo.- Dar por cumplimentado el trámite previsto en el artículo 105.2 del RPV y comunicar el presente Acuerdo al Parlamento Vasco".

Y para que así conste y surta los efectos oportunos, expido la presente certificación en Vitoria-Gasteiz, a 18 de diciembre de 2007.





## NIK, IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAINEK, EUSKO JAURLARITZAKO LEHENDAKARIORDE ETA IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, HAU

### ZIURTATZEN DUT:

Eusko Jaurlaritzak, 2007ko abenduaren 18an egindako bileran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

ERABAKI-PROPOSAMENA, JAURLARITZAK IRIZPENA ADIERAZTEKOA, EUSKAL FUNTZIO PUBLIKOARI BURUZKO 6/1989 LEGEA ALDATZEKO ARALAR LEGEBILTZAR-TALDE MISTOAK EGINDAKO LEGE-PROPOSAMENA KONTUAN HARTZEARI BURUZKOA.

“Euskal Funtzio Publikoari buruzko 6/1989 Legea aldatzeko” Aralar Legebiltzar-talde mistoak aurkeztutako lege proposamena aztertuta, Jaurlaritzaren Kontseiluak, eztabaidatu ondoren, hau:

### ERABAKI DU:

“Lehenengoa.- Lege proposamen hori aintzat hartzeaz kontrako iritzia azaltzea. Arrazoiak:

1) Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, hizkuntza-normalkuntzari buruzko V. tituluan, azaroaren 24ko 10/1982 Legearen 14. artikuluan jasotako aurreikuspenak garatzen ditu, herri-administrazioetan hizkuntza ofizial biak jakitea nahitaezkoa duten lanpostuak zehazteko (24/1982 Legea, Euskararen Erabilera arautzen duena).

2) Lanpostuei hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasuna jartzeko egun indarrean den araubidearen bidez, aplikatu behar den lurralde-eremuaren errealitate soziolinguistikoarekin bat egitea lortu nahi da. Izan ere, horrela bermatuko dira herritarrek zerbitzu publikoak jasotzerakoan edo horietara jotzerakoan aukeratzeko duten hizkuntzaren eskakizunak.

3) Egungo plangintzaren esparruan, euskal herri-administrazioetan euskararen erabilera harian harian normalizatuz joateko eta herritarrak aukeratzeko duen hizkuntzan erantzun diezaioten duen eskubidea benetan bermatzeko, lehentasunezkoztat jo dira jendaurreko administrazio-atalak eta gazteriarekin harreman zuzena eta ohikoa duten atalak, betiere, administrazioari ahoz zein idatziz euskaraz erantzun diezaioten bermatzeko. Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planetan erabateko lehentasuna eman zaie jendaurreko atalei eta dotazioei, bai planak aplikatzerakoan bai derrigortasun-irizpideak zehazterakoan. 2008-2012 IV. Planak ere jendaurreko atal eta dotazioak lehenestea berresten eta sendotzen du, funtsezkoa baita Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.

4) Hala ere, edozein kasutan, beharrezkoa da arretaz eta zuhurtziaz jokatzeko, guztiei derrigortasun-data bat jartzerakoan; izan ere, horrek zuzeneko eragina du euskal herri-administrazioetako langileen egoeran eta estatusan. Halaber, kontuan hartu beharrekoak dira errealitate soziolinguistikoak eta mailakatze-printzipioa hizkuntza-politikak aplikatzerakoan.

5) Bestalde, Jaurlaritzak Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legearen testu berri bat prestatzen dabil. Testu horren edukia eztabaidatu egingo da, eta hala bada, onartu egingo da Legebiltzarrean, datozen hilabeteetan. Hori dela eta, egokitasun eta bideragarritasun irizpideak kontuan hartuta, komeni da egun indarrean den legean zatikako aldaketarik ez egitea, eta han bideratzea eztabaida eta aurkeztutako proposamenean planteatutako ekimena.

Bigarrena.- Betetzat ematea Eusko Legebiltzarreko Araudiko 105.2 artikuluan aurreikusitako tramitea, eta erabaki honen berri ematea Eusko Legebiltzarrari”.

Horrela jasota gera dadin, eta bidezko diren ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau eman dut Vitoria-Gasteizen, 2007ko abenduaren 18an.